

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko SR-6 eremuan (Elexalde) lizentziak ematea etetea (Iragarkia 2018-08-02 Bakioko).**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Hirigintza Sailak, abuztuaren 7ko 847/2008 Foru Agindu bidez, behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partziala; gauzak horrela, Foru Aldundiaren ebazpen hori 2008ko abuztuaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta planaren arautegi urbanistikoa 2009ko otsailaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak uztailaren 3ko 4638/2012 Foru Agindu bidez behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partziala aldaraztea, bereziki sestra azpiko lerrokadurari eta bestelako gai batzuei zegokienez. Foru Aldundiaren ebazpen hori eta aldarazpenaren arautegi urbanistikoa 2012ko uztailaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Bestalde, udalaren ekimenaz, plan partzial horren aldarazpenaren zirriborroa presatatu da. Hala, SR.6-Elexalde eremuan burutu ez diren azpieroemuetako plan partzialaren antolamendu xehatuaren aldarazpen partziala proposatzen da.

Hori dela eta, aldarazpen hori zirriborroan ezarritako helburu eta irizpideen arabera garatzen jarraitu ahal izateko, Bakioko udalbatzak, 2018ko abuztuaren 23an egindako bilkuran, honakoa erabaki du bertaratutako zinegotzien aho batez:

Bakioko hirigintza plangintzako arau subsidiarioetako SR-6-Elexalde egoitzako eremuan urtebeteko epean etetea era guztietako onarpen, baimen eta lizentzia urbanistikoak ematea.

Etete erabakia argitara emango da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 85. artikuluan ezarritako moduan.

Lizentziak ematea eteteko erabakia behin betikoa da bide administratiboan eta haren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, behin ebazpena eman duen organoari jakinarazi ondoren; hori ez da oztopo izango egokitzen diren bestelako aurkarapenak jartzeko.

Bakion, 2018ko abuztuaren 27an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra